



LIBURUA

Ongi jin



DANI BLANCO

ABARO ITXARO BORDA

BALEA ZURIA, 2020

IGOR ESTANKONA

Ez da gaur egungo Europako zuritaren irletan gehien entzuten den esaldia ongi jin, *kalos irthate*. Itxaro Bordak, ostera, zikoitzen kontra idatzi du *Abaro*, dena ematen ez dutenen kontra, besoak zabaltzen ez dituztenen kontra. Poemek ere estu hartzen dute irakurlea, eskatzen diote konpromisoa hizkuntze-kin, esamoldeekin, irudi arean nahasiekin. Itxaro Bordaren idazkera delako, esan dezagun bidenabar, ilunpe fresko bat atsedean hartzeko ortodoxiatik, desintoxikatze hainbeste gatzbakotasunetik. Horregatik itxarozaleok liburu hau disfrutatu egingo dugu, eta gainontzekoek, agian, baita ere: “Nor nahi non nahi eser-tzen da./ Eskubide osoz”.

Hasierako poemek kokatze-poemak dirudite, kontenplazio-poemak, sexu

-poemak, sentipenen arragoa: “Besoak zabalik ohe handiegian etzaten naiz/ Antonioniren filmaren batean bezala:/ esteiari”. Esteiariak, baina egiten du apurka-apurka gai sozialetara, munduari diotso darabilen intimidazio, gerra, krudelkeria, laido hori guztia ez dela zilegi, ez dela poesia. Malenkoniatsu ere jarri da gero, eta Mundakatik Bartzelonan barru egin du, eta liburu daroa lerro motzen puruz arnasa luzeko poema ederretan barna Arginetaraino, non lagunak dituen zain, lorratzik utzi ezin den eterrean: “Ez dugu deus galtzekorik./ Motxila astunegiek lehertzen gaituzte./ Haize latzek gure desioa birrintzen dute./ Amor ematekotan gaude./ Arren, arindu gaitezen/ Lurreko hautsetan oina luza/ Eta ez dezagun hatzik utz”.

Non egiten du abaro irakurleak beraz? Itxaro Bordaren *Abaro* hone-tan behintzat, inon gutxi. Poemario hau zabalik dago ukabilaren antzera. Promesa bat da, eta promesa hori da kontraste poetiko batekin errealitate-a azal daitekeela: “Kareharrizko zeru-mugak./ Egunerokotasun kaltzi-koen iragarpenak./ Begira nagokizu:/ Han, txioak,/ Zaunkak, kroak, kuku-rrukuak/ Eta hiri-bilduaren azantz/ Garatza”. *Abaro* irakur daiteke bere horretan edo kondentsazio moduan, sentsazio baten antzera. Itxaro Bordak beti utziko dizu ate bat zabalik, iltze gori bat zeinari oratu, anbiguetate bat eramangarria. Maite dut Itxaro Borda, hitz bakoitza liberazio bat dela gogorazten didalako. ●